

Sendatzen duen begirada

Egunero-egunero, gizatasunaren zirrikiturik ireki ezean, indargabe sentiaraz gaitzaketen sufrimendu asko ikusten ditugu gure inguruan. Hala ere, batzuetan, erantzunak WhatsAppetik bidaiatzen du, batasuna bizi nahi duen Italiako hiri bateko komunitate txiki batean gertatu zen bezala: «... *lan egiten dudan ospitalean gazte bat dago, atzerritarra, bakarrik dagoena eta hiltzen ari dena. Agian norbaitek minutu batzuk eman ditzake berarekin, egoera horri duintasun pixka bat emateko ?*». Zirrara sakona eragiten du, eta erantzunak berehala datoz. Bere azken orduetan ondoan egon zenaren mezuak honako hau dio: "*Bere ohe ondoan geundela berehala ohartu ginen laguntza medikoa puntuala, arretatsua eta maitasunezkoa zela, eta ez genuela ezer zehatzik egin behar, han egotea izan ezik. Bera ere, ordurako koman zegoena, ezin zen gure presentziaz baliatu*». Alferrikakoa? Ordu gutxi horietan, komunitate txiki batek, ospitale barruan eta kanpoan, lagundu eta zentzua eman zuen. Auskalo ama batek dolu egin ahal izango dion bere herrialdean Ziur aski, haren "igarotzea" ez zen alferrikakoa izan jadanik arrotz ez zen mutil gazte hura maitatu ahal izan zutenenentzat.

Errukia barrutik sortzen den sentimendua da, giza bihotzaren barren-barrenetik. Eguneko konpromiso eta hitzordu frenetiko betetako bidaia eteteko gai egiten gaitu, eta zauriak "ukitzeko" beldurrik gabe hurbildu eta zaintzen duen begirada eskaintzeko gai.

Chiara Lubichek argi eta garbi azaltzen du: «*Imajina dezagun egoera berdinean gaudela, eta tratatu dezagun gu tratatuak izan nahiko genukeen bezala. Gose da? Ni naiz gose, pentsa dezagun. Eta eman diezaiozun jaten. Bidegabekeria bat jasaten du? Neuk pairatzen dut! Eta esan diezazkiogun kontsolamenduzko hitzak, parteka dezagun haren oinazea eta ez dezagun atsedenik har hura argitu eta arindu arte. Mundua poliki-poliki aldatzen ikusiko dugu gure inguruan*»¹.

Afrikako jakinduriak ere hala baieztatzen du Boli Kostako esaera zahar batekin: «*Atzerritar bat hartzen duenak mezulari bat hartzen du*».

Ideia horrek humanismorik benetakoa egiteko gakoa eskaintzen digu; amankomunean dugun gizatasunaren jakitun egiten gaitu, non gizon eta emakume bakoitzaren berezko duintasuna islatzen den, eta "hurbiltasun" fisiko eta kulturalaren kategoria ausardiaz gaingitzen irakasten digu. Horrela begiratuta, posible da "gu"aren mugak "guztion" horizonteraino zabaltzea eta bizitzaren oinarriak berak berraurkitzea. Eta garrantzitsua da geure burua zaintzea, bidaia elkarrekin egiten dugunon laguntzarekin, inguruko sufrimenduen aurrean erortzen garela iruditzen zaigunean. Roberto Almada psikiatra eta psikoterapeutak dioen bezala, «*zintzoek nekearen ondorioz borroka uzten badute, gure gizatasunak izango du arriskurik handiena: balioen pobretzea*»².

¹ Chiara Lubich -L'arte di amare – 60.or.

² R. Almada: "Il burnout del buon samaritano" – Effatà argitaletxea-2016